

ASTEAZKENA

2017/09/13
5. urtea, 733. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Belar artifiziala jarriko zaio Elorriri

Alegiako futbol zelaia egun hartxintzarrezkoa da; urte bukaera baino lehen hasiko dira lanak // **4**



Zerkausi azpian aurkeztu zuten aurtengo festa eguna. I. URKIZU ARSUAGA

Elkartasun paladak bueltan dira Oria ibaian

Tolosako hainbat elkarte laugarrenez antolatu dute elkartasun topaketa, eta estropada izango da erdigunea; Zutani elkarteari lagunduko diote aurten, familia behartsuengana helduz // **2**

Zarateko merkatu beltzeko merkantziez gain emozioak nagusi

Azken Muga proiektuan Joxe Mari Oterminek, Zaraten bertan, 'Emozioen estraperloa, mila eta bi istorio xume' zerrendatu ditu // **6-7**

Lau ordezkari izango ditu Tolosaldeak Txapelketa Nagusian

Baigorri abiatuko da bertso dema irailaren 23an eta eskualdean saio bakarra izango da, urriaren 14an Tolosako Beotibarren // **3**

Andoaingo AEK Euskaltegia

- Berastegi, Altzo, Irura, Anoeta, Zizurkil, Villabona...
- Maila guztiak
- Hizkuntza perfilak (1-2-3) eta EGA
- Autoikaskuntza
- Tutoretza pertsonalizatuak eta mintza saioak astean behin

Informazio orokorra:
Plazaola 2, Andoain
943 59 17 04 · andoain@aek.eus

DIRU-LAGUNTZAK

Udalek diruz lagunduta

EUSKALTEGI BERRIA

aek
euskara praktikoa

**% 100
AFEKTIBOA**



Oria ibaia elkartasun olatu beteko da larunbatean

Tolosako elkartearen arteko topaketa ospatuko dute laugarrenez, eta batel estropadak izango dira festaren erdigune, Zutani elkarteari laguntzeko

Itzea Urkizu Arsuaga

2014an izan zen lehena: Tolosako elkarte gastronomikoek bat egin zuten, elkartasun helburuz. Helburu berera iristeko indarrak arraunean batu zituzten, gainera, eta jada ohitura bilakatzen ari da, herritarrak batelen arteko lehian ikustea. Larunbatean izango da aukera, 11:00etatik aurrera.

Stop Sanfilippo, Afestta eta Pausoka elkarteei babesa eskaini eta gero, aurten Zutani elkartera bideratuko dituzte Tolosako Elkarteen arteko Topaketako lorpen ekonomikoak, eta aurreko urteetako egitaraua baliatuko dute horretarako. 11:00etan hasiko da festa, Zerkausi inguruan, batel estropadarekin eta, ordu berean, pintxoak eta edariak dastatzeko aukera izango da, Zerkausiko lehen solairuan. Behin kirol proba amaituta, 12:30ean kalejira egingo dute, txarangak girotuta, eta bazkari legea ere Zerkausi izango da, 14:00ak aldera. Arratsaldean, berriz, egitaraua biribiltzeko, txaranga doinuak itzuliko dira elkartearen arteko festara, 17:00etatik aurrera.

8 TXANDA UR BARETAN

Oria ibaiaren zabalerak hala aginduta, estropadako txanda bakoitzean bi ontzi ariko dira. Baldintza berdinetan lehiatzeko, ordea, talde bakoitzak bi txanda jokatu beharko ditu, kale banatatik. Horrela, beraz, zortzi txandetako batel bikoteak zozketa batek erabaki ditu.

Bi txandetako denborak batu-ko dituzte eta, kronorik onena eskuratzen duten bi batelek jokatuko dute finala. Antolatzaileek, ordea, argi dute larunbateko txapelduna nor izango den: «Zutani elkarte izango da estropadako irabazle bakarra eta, Kotxako estropadaren hariari tiraz, igandeko olatuak izan daitezela elkartasunezkoak, datorren larunbatean».

253 ARRAZOI, FESTAN PARTE HARTZEKO

2013an sortu zenez geroztik, garatu egin da Tolosako Zutani elkartearen jarduna. Pobrezia egoeran bizi diren familiei jatekoa ematen ekin zioten bideari, elikagai bankuarekin elkarlanean; gaur egun, ordea, helburua zabaldu, eta laguntza humanitario elkarte da Zutani: «2013an 65



Laugarrenez ospatuko dute elkartearen arteko festa. ASIERIMAZ

familiak jasotzen zuten gure elkartearen laguntza eta, gaur egun, 253 familia artatzen ditu-

Zortzi batel ariko dira, 11:00etatik aurrera, Oria ibaian arraunean; bi txanda izango dira

Zutani elkarteari bideratuko dizkiote irabazi ekonomikoak; 253 familiari laguntzen dio elkarteak

gu; tartean 224 haur», azaldu du Arantxa Iruretagoiena elkarteak.

Lan boluntarioa dute oinarrian eta, Tolosako Udalarekin batera, hainbat espresaren babesa jasotzen dute. Larunbatekoarekin bultzadaxo bat gehiago jasoko dute, eta Iñigo Gorostiaga elkartearen ordezkariak horretara deitu ditu, aurten parte hartu ez duten elkarteak: «Lehen topaketan 18 elkarte bildu ginen, bigarrenean 10 eta iaz 12. Dei egin nahi diegu gainerako elkarte guztiei ere, helburu solidario honen bat egin eta urteroko topaketan parte hartzeko».

IRAGARKI LABURRAK

Lan bila

Sukaldaria. Emakume sukaldariak bere burua eskaintzen du Tolosaldean lan egiteko. Euskalduna eta esprirentziaduna da. Telefonoa: 688 68 12 57. Deitzeko ordutegia: 20:00etatik 22:00etara bitarte.

ELKARTASUN ESTROPADA

Txandak

- 1. txanda.** Lizardi 2 / Oargi
- 2. txanda.** lurre / Aiz-Orratz
- 3. txanda.** Emendek / Txinparta eta San Esteban
- 4. txanda.** Lizardi 1 / Batasuna
- 5. txanda.** Oargi / Lizardi 2
- 6. txanda.** Aiz Orratz / lurre
- 7. txanda.** Txinparta eta San Esteban / Emendek
- 8. txanda.** Batasuna / Lizardi 1

Taldeak

Batasuna. Jon Ander Santos Olano, Iosu Karrera Artola, Andoni Alzate Goitia, Josean Iraola Ferrero, Iñaki García Gainzerain.

Oargi. Eneko Zubiria Begiristain, Ander Artimuzu Pastor, Aitor Hernandez Aramendi, Gari García, Ioritz Seguro.

Emendek. Ekaitz Beraza, Iñigo Gorostiaga, Antonio Merino, Ramon Garmendia, Felix Arnaiz.

Lizardi 1. Julen Telleria, Mikel Agirre, Asier Etxeberria, Eli de Arriba, Ibai Vaquero.

Lizardi 2. Kike Conde, Iñigo Martiarena, Onintze Hartsuaga, Josune Sanz, Amaia Vaquero, Ekaitz Beraza, Oier Gastesi.

Aiz Orratz. Iban Ormazabal, Gorka Galarza, Josean Joubert, Eneko Egailde, Miguel Guibelalde, Miguel Gibelalde.

lurre. Olatz Godoy, Maria Imaz, Hodei Urkiola, Unai Saralegi, Beñat Etxeberria.

Txinparta. Luis Oruezabal, Jon Ormazabal, Imanol Gibelalde.

San Esteban. Agustin Pagola, Mikel Fernandez.

Ostegunean hasiko da Tolosako garagardo festa, TAKEren eskutik

23 garagardo mota, eta zenbait berrikuntza dakartza aurtengoak; data eta espazioa, berriz, urterokoak izango dira

I. Urkizu

Hirugarrenez hartuko du, TAKEk, Tolosako garagardo festaren antolakuntza, eta 2017koa zenbait berrikuntzarekin dator. Ostegunean hasiko da, 18:30ean, eta igandera bitarte Zerkausia garagardozaileen aterpe bilakatuko da.

Saskibaloitza taldeak zenbait berrikuntza txertatu ditu aurtengo festan eta, besteak beste, haragi hanturgesak nahiz begetalak dastatzeko aukera izango da, betiko jakiekin batera; kafea hartzeko aukera ere izango da Zerkausian.

Garagardo festaren muina, ordea, garagardoa da, eta aurten 23 mota dastatzeko aukera izango da: 4 arrunt, 16 berezi eta 2 artisau garagardo. Guztira, 7.620 garagardo litro jarriko dituzte, bertaratzen direnen eskura.

Gauza jakina da festarik ez dagoela musikarik gabe, eta DJ Jotatxo eta DJ Bullen ardura izango da, ostiral eta larunbat gauean, 02:00etan Zerkausia itxi bitarte girotzea; ostegunean eta igandean 00:00etan izango da itxiera ordua.

Azkenik, aipatzekoa da, Zerkausiko bezeroen artean Redline mekanikako 200 auto-azterketa zozkatuko dituztela.

Haurrentzako irteera gingo du Alpinok

MENDIA // Urkiolatik Oletara ibilaldia egingo du Alpinok, igandean, haurrekin. Autobusa 09:30ean irtengo da San Franziskotik, eta 17:00etan itzuliko dira Tolosara. Irteera izena emateko: info@alpinouzturre.eus edo 943 65 27 89.

Mendiko film proiektzioa, gaur

MENDIA // Miguel Angel Bermudezek antolatuta, mendiko film proiektzioa izango da, gaur, 20:00etan, Tolosako kultur etxe-ko areto nagusian. Guztira, hiru lan eskainiko dituzte.



Tolosaldeko lau bertsolari ariko dira Txapelketa Nagusian

Euskararen lurralde osoan izango da aurten txapelketa eta geldialdia egingo du urriaren 14an, larunbata, Tolosako Beotibar pilotalekuan



Atzo Bilbon aurkeztu zen Txapelketa Nagusiaren 2017ko edizioa. XDZ

Jon Miranda

Irailaren 23an Baigorri abiatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusia eta abenduaren 17an bukatuko da BECen. Bide horretan, euskararen lurralde osoa zeharkatuko du, baita Tolosaldea ere, azken final laurdena Tolosako Beotibar frontoian izango baita, urriaren 14an. «Modu batera edo bestera bertsolaritza presente dago herri horietan guztietan eta horren isla da aurtengo Txapelketa Nagusia», esan du aurkezpene ekitaldian Jokin Castaños Bertsolari Txapelketa Nagusiko talde antolatzaileko kideak.

Idea berean sakondu du Alaitz Rekondo, Nafarroako Bertsozale Elkarteko lehendakariak: «Bere ikusgarritasunean Txapelketa Nagusia ez da lau urtetik behin egiten den ekimen isolatu bat, urte luzez eta egunez egun Euskal Herriko herrialde guztietan bertsolaritza bultzatzen ari

garen hainbat eragileren lanaren ondorioa da».

Tolosaldean bertsolaritzak bizi duen osasun onaren erakusgarri da, baita ere, txapelketan parte hartuko duten bertsolarien kopurua. 43tik lau dira eskualdekoak: Mikel Artola, Beñat Iguaran, Oihana Iguaran eta Aitor Mendiluze. Lehen hiruak, final laurdenetan hasiko dute beren ibilia txapelketan eta Mendiluzek, duela lau urteko finalista gisa, azaroaren 12ko finalurrekoan egingo du sarrera txapelketan, Durangon.

Bertsolariez gain, jende asko dago Txapelketa Nagusia posible egingo duena. Besteak beste, 18 gai jartzailez eta 20 epailez osatutako taldeak ere ariko dira lanean eta talde horietan daude Iker Iriarte alegiarra eta Jon Zaldua eta Zigor Leunda billabonatarrak. Horiei, borondatez lanean arituko diren bertsozale askoren lana gehituko zaie.

Txapelketari buruzko ataria prest dute www.bertsozale.eus webgunean eta ohiko informazioaz gain, bertsogintzaren inguruko hausnarketak bilduko dira adituen eskutik. **TOLOSALDEKO ATARIA**-k ere, jarraipen zabala egingo dio Txapelketa Nagusiari euskarri ezberdinetan.

SARRERAK DAGOENEO SALGAI

Final laurdenetako sarrerak salgai jarri dituzte www.bertsosarrerak.eus atarian. Bestalde, finalurrekoak eta finalekoak bazkideek bakarrik eskuratu ahal izango dituzte urriaren 2ra arte.

Aurten, bazkideek lortu ahal izango dute bakarrik abonamendua Iñaki Murua Bertsozale Elkarteko lehendakariak argitu duenez: «Txapelketa honetan onura gehiago eskaini nahi izan diegu gure bazkideei, haien inplikazioa eta ekarpena eskertzeko modurik onena dela iruditzen baitzaigu. Izan ere, Bertsozale

Elkarteko bazkideak dira gaur aurkeztu dugun Bertsolari Txapelketa Nagusi honen eta Bertsozale Elkartek aurrera eramaten dituen bestelako hamaika ekimenaren sostengurik handi, fidel eta ezinbestekoena». Era beran, salmenta guñeak ere izango dira Euskal Herri osoan zehar, sarrera arruntak erosteko.

ENTRENAMENDU SAIOA, GAUR

Harituz bertsozaleen elkarguneak antolatu eta Altzoko Udalak lagunduta, gaur Txapelketa Nagusirako entrenamendu saioa izango dute eskualdeko bertsolariek. Batzarremuño aretoan izango da, 19:00etatik aurrera. Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartuko duten Mikel Artola, Oihana Iguaran eta Beñat Iguaran ariko dira bertsotan, Anoetako Txomin Azpirozekin batera. Imanol Artola *felix* amezketarrak jarriko ditu gaiak gaurko saioan.

FINAL LAURDENAK

Irailak 23, larunbata – Baigorri

17:00. Aimar Karrika, Alaia Martin, Ander Lizarralde, Beñat Ugartetxea, **Mikel Artola**, Xabi Maia.

Irailak 30, larunbata – Segura

17:00. Ander Fuentes *Itturri*, **Beñat Iguaran**, Felix Zubia, Jon Martin, Nerea Elustondo, Unai Gaztelumendi.

Urriak 1, igandea – Leitza

17:00. Agin Laburu, Iñaki Apalategi, Julio Soto, Oihana Bartra, **Oihana Iguaran**, Unai Agirre.

Urriak 7, larunbata – Zalla

17:00. Eneko Abasolo *Abarkas*, Jone Uriá, Miren Amuriza, Odei Barroso, Oihane Perea, Onintza Enbeita.

Urriak 8, igandea – Zumaia

17:00. Arkaitz Oiarzabal *Xamoa*, Asier Otamendi, Ibon Ajuriagojeaskoa, Miren Artetxe, Nahikari Gabi-londo, Nerea Ibarzabal.

Urriak 14, larunbata – Tolosa

17:00. Beñat Lizaso, Eneko Lazkoz, Etxahun Lekue, Jon Maia, Maddalen Arzallus, Xabat Gallettebeitia.

FINALURREKOAK

LEHEN ITZULIA

Urriak 28. Bastidan. Igor Elrotza, Sustrai Colina + beste 4.

Azaroak 1. Iruren. Aitor Sarriegi, Maialen Lujanbio + beste 4.

Azaroak 4. Maule-Lextarren. Beñat Gaztelumendi + beste 5.

Azaroak 12. Durangon. **Aitor Mendiluze** + beste 5.

BIGARREN ITZULIA

Azaroak 19. Amurrión.

Azaroak 26. Donibane Lohizunen.

Abenduak 2. Iruñea.

FINALA

Abenduak 17, igandea

BEC. Amets Arzallus + sailkatutako 7 bertsolari.



MIKEL ARTOLA
BERTSOLARIA

(Alegia, 1989). Alegiako Zazpi Astoren Gaietan bertso eskolan hasi zen bertsolaritzarekin zaletzen, gero Gasteizen aritu zen eta gaur egun Harituz Tolosaldeko bertsozaleen elkargunean ari da. Gipuzkoako Bertsozale Elkartean aritzen da lanean. Lehen aldia du Txapelketa Nagusian.



BEÑAT IGUARAN
BERTSOLARIA

(Amasa-Villabona, 1988). Txikitatik datorkio bertsozaleatasuna eta hainbat sariketetan parte hartu izan du: Osinalde, Plazatik Gazte-txera, Lizardi, Erriarraitz... Gaur egun Lasarteko eta Tolosaldeko bertso eskolan ari da. Lehenengo aldiz parte hartuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



OIHANA IGUARAN
BERTSOLARIA

(Amasa-Villabona, 1991). 10 urterekin ikastetxean lehen bertsolaritza eskola jaso zuenetik hurbildu zen bertso eskolara eta bertan segitzen du. Harituz Bertsozale Taldeko kidea da. 2015eko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean aritu zen. Lehenengoz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



AITOR MENDILUZE
BERTSOLARIA

(Andoain, 1975). Eskolan izan zuen lehen harremana bertsoekin. Herriko bertso eskolan aritu da, baita Andoaingoan ere. Gaur egun, Iruran bizi da. 1995ean eta 2007an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. Seigarren parte hartzea du Txapelketa Nagusian eta lautan iritsi da finalera.

Belar artifizialeko zorua jarriko dute Elorri futbol zelaian

Obrak urtea amaitu baino lehen hasiko dira eta nahaia 2018. urtea hasi baino lehen bukatzea da; Intxurre elkartekoentzat «oso positiboa» izan da albiste

Imanol Garcia Landa Alegia

Alegiako Elorri futbol zelaia itxura berria izango du laster. Izan ere, zorua aldatu egingo dute belar artifiziala jarriz. Proiektua egun lizitazio prozesuan dago. Aldundiak laguntza emango du eta udalak, ikusita baliabideak zituela, baldintza pleguak eta lizitazio prozesua martxan jarri zuen udan. Bihar da azken eguna enpresentzat proposamenak egiteko.

Esleipenaren erabakia «lehenbailehen hartu nahi dugu, eta obrak urte amaiera baino lehen hasi eta ea bukatzeko aukera ere badugun», azaldu du Unai Iraola alkateak. Aurrekontua 360.000 euro ingurukoa da. «Ikusiko dugu enpresaren batek kopuru horren azpitik eskaintza egiten duen, baina nahiko doitu dago proiektu teknikoa. Material bera da garestia eta horrek igotzen du batez ere kostua», esan du Iraolak. Aldundiaren laguntza 120.000 euro ingurukoa izango da. «Asmoa da Gipuzkoako Futbol Federazioari eskaera egitea, beraien ekarpena egin dezaten, baina egoera nahiko nahasia dutenez, esperantza handirik ez dugu alde horretatik».

Belar artifiziala jartzeaz gain beste zenbait aldaketa egingo



Aurki aldatuko da Alegiako Elorri futbol zelaia itxura. I.G.L.

dira. «Hobekuntza integralagoa egitea aurreikusi da, behin horrelako proiektu batean sartuz gero», esan du Iraolak. Irisgarritasunarekin lotutako aldaketak egiteko asmoa dago, eta horrek ekarriko luke futbol zelaia pixka bat estutzea. Bestalde, inguruko hesiak aldatu egingo dira, egun goak punta zorrozduak direlako, eta beste modu bateko babesak jarriko dira. «Aztertzen ari gara harmailaren bat jartzea. Noski, baliabideak mugatuak di-

tugunez, ikusiko dugu zer egin daitekeen», esan du alkateak. «Aurrekontu handi batez hitz egiten ari gara eta obrak aurrera doazen heinean ikusiko dugu zenbat baliabide gehiago bideratu ditzakegun. Printzipioz gure eskura dauzkagun hobekuntza guztiak egiten saiatuko gara».

ASPALDIKO ESKAERA

Intxurre futbol elkartearen ingurutik eta bertako jokalarien aldetik aspaldiko eskaera da belar ar-

tifiziala jartzearena. Gipuzkoan geratzen den zelai bakarrenetako da hartxintxarra duena. «Kontuan hartu behar da ere eremu guztia, bai futbol zelaia bera eta frontoia ere, Alegiako eskola eta institutuaren eremu bezala izendatuta dagoela, eta herrian DBH ikasi ahal izateko Hezkuntzak jarritako baldintzetako bat izan zela», esan du Iraolak. «Berraz, ikasleentzat ere hobekuntza izango dela ikusten dugu». Horrez gain, frontoiari berari ere

eragingo dio garbitasunaren aldetik. «Oraingo zorua hauts pila bat harrotzen du, eta lehorra dagoenean asko zikitzen du. Iru-ditzen zaigu garbitasunean eta hautsa gutxitzen lagunduko duela», gaineratu du alkateak.

Intxurre elkartekoentzat «oso positiboa» izan da Elorri futbol zelaia zoru aldaketaren berria. Patxi Renobales elkarteko kideak azaldu duenez, «honen zain egon gara luzaroan». Gaia-rekin «etsita» zeudela dio Renobalesek: «Putzuak sortzen dira, marrak ezabatzen dira eta kono txiki batzuk jarri behar izaten dira jokalekua mugatzeko, harri asko ditu... Gurasoek-eta komentarioak egiten zituzten zoruaren egoera inguruan... Kluba desagertzeko arrazoa izan zitekeen ez bazen zorua aldatzen».

Belar artifizialera aldatzen denean, inguruko herrietatik jokalaria erakartzeko motiboa izan daitekeela nabarmendu du Renobalesek. Gaur egun sei talde daude Intxurren: gizonezkoetan erregional mailakoa, jubenilak, kadeteak eta bi talde infantiletan; eta emakumezkoetan jubenil mailakoa.

Obrak hasten direnean, talde guztien dinamikak aldatuko dira. Batetik entrenamenduak egiteko arazoak izango dituzte eta areto futboleko aritu beharko dutela dio Renobalesek. Bestetik, beste hainbat herritako klubekin harremanetan daude, Intxurrekoek etxeko partidak horien zelaietan jokatu ahal izateko. Denboraldia berezia izango da Alegiako futbol klubarentzat, eta kirol helburuei dago-kionez «lasai» hartuko dute. Talde nagusiak larunbatean hasiko du liga, Elorri zelaian, Seguraren aurka.

Erritmo «oso onean» doaz Larraitz Mendebaldeko obrak

Auzoaren lehenengo zatian azpiegitura nagusiak berrizatu dira, eta orain urbanizazio lanak egingo dituzte

I. Garcia Landa Alegia

Alegiako Larraitz auzoko obrak aurrera doaz. «Udal talde honen gure programako promesa nagusietakoa zen Larraitz Mendebaldeko obrak egitea, Alegiako zati horretako herritarren bizi kalitatea hobetu behar zelako, eta aspalditik zetorren eskaera bat ze-

lako», azaldu du Unai Iraola alkateak. Uztailean hasi ziren lanak, jendea oporretan egotea eta kotxeen ibilera gutxien egon daitekeen garaia aprobetxatzeko. «Uztailean eta abuztuan lanak oso erritmo onean egin dira», esan du Iraolak. «Oso gustura gaude lanak egiten ari diren enpresakoen jarrera eta laneko dinamikarekin. Lan konplexua da eta denboran iraupena izango du».

Lanak orain arteko moduan joanez gero, bederatzi hilaberen buruan bukatuta egotea espero

dute. Halere, Iraolak azaldu duenez, «horrelako obretan gerta daiteke ezusteren bat edo arazoren bat izatea eta espero ez zenean atzerapen bat izatea. Herritarrei eskatuko nieke pazientzia pixka bat izatea. Auzoa hobetuko da eta ederragoa geratuko da, baina bien bitartean obrak jasan beharko dituzte».

Bi fasetan banatu dira obrak eta auzoa bi zatitan banatu da. Lehenengo zatian azpiegitura nagusiak berrizatu dira: ur zikinak eta euri urak bereiztu dira, argindarraren hodi berriak pasa



Larraitz Mendebaldean egiten ari diren obren irudia, aurreko astean. I.G.L.

dira, telekomunikazioak ere ondo zeudenak sendotu dira eta berriak ere bota dira. «Beste azpiegiturak ere pasa dira, eta esan daiteke nolabait arteria nagusiak

hobetu direla. Orain zati horretan urbanizazio lanak hasiko dira. Bigarren zatian ere prozesu berdina egingo dute», esan du Iraolak.

Euskal Jaia antolatzeko bilera egingo dute bihar

ANOETA // Urriaren 8an izango da Euskal Jaia hamargarren edizioa eta antolatzeko bilera egingo dute bihar osteguna, 18:30ean udaletxean. Era berean, esan dute aurrerantzean jaia edizio guztietarako erabiliko den logoa aukeratu dutela eta Joxe Ramon Egibar anoetarrarena dela. Bestalde, edizio hau iragar-tzen duena ikastolako ikasleen artean aukeratu zen eta Laida Sofia Baron irurarrarena da.

Basagain ezagutzeko bisita gidatua, igandean

ANOETA // Basagain ezagutzeko aukera egongo da igandean, hilak 17, bisita gidatua antolatu baitute. 09:30ean elkartuko dira Anoetako plazan eta 11:00ak aldera iritsiko dira Basagainera. Antolatzaileek esan dutenez, ibiliz edo ipar martxa eginez gerturatu ahal izango da Burdin Aroko herrixkara eta Aranzadi zientzia elkarteko Xabier Peñalverrek emango ditu azalpenak, gatzelaniaz.

Zabor bilketa zerbitzuaren tasaren ordainketa

AMEZKETA // Udalak jakinarazi du, zabor bilketa zerbitzuaren tasaren ordainketa burutuko dutela irailaren 15etik urriaren 30era. Erreziboak helbideratuta dutenei irailaren 15ean kobratuko diete eta gainontzekoek, Kutzabankeko edozein bulegotan egin dezakete, aguazilak etxera eramandako erreziboarekin. Epea pasaz gero, erreziboek %20ko errekgaria izango dutela ere gogoratu dute.

Ezohiko bilkura egingo dute bihar, 20:30etik aurrera

AMEZKETA // Ezohiko osoko bilkura egingo dute bihar, osteguna, 20:30ean. Bilkuran, besteak beste, Saturnina Zabala Galarza zinegotzi berriak kargua hartuko du eta Larrunarri pilotalekuaren eraberritzearen proiektuari onespina eman eta kontratazioari hasiera emango diote. Altsasuko auziaren inguruko mozio bat ere izango dute eztabaidagai.

Ibarrako baserritarren lanari gorazarre, igandean

‘Ibarra, Azoka eta Piparra’ azokak hartuko du herria 10:00etatik 14:00etara; aurten gilda pintxoak protagonismo berezia izango du

Erredakzioa Ibarra

Ikasturtea hastearekin batera, ohiko bihurtu da Ibarra, azoka berezia egitea. Geroztik eta postu zein eskaintza zabalagoa eskaintzen du. Izan ere, duela hemezortzi urte hasi ziren antolatzen herriko eta eskualdeko nekazari eta abeltzainek euren produktuak ezagutarazteko eta kontsumitzaileek kontsumitzen dutenaren jatorria eta ezaugarriak erakusteko asmoarekin. Pixkana handituz joan da eta elikagaiak eta inguruko etxaldeetako ganadua ez ezik, artisauen lanak ere biltzen ditu azoka bereziak.

Bi dira gune nagusiak, San Bartolome plaza eta Emeterio Arrese parkea.

Plazan artisauen postuak egongo dira eta baita Hauspoak herrian sortu edo bizi diren txirrindularien argazkiekin osatu duen erakusketa ere. Era berean, Uzturpe ikastolak ikasturte honetan atera dituen jantzi berrie-kin postua jarriko du, bertan jantziak probatu eta enkargatzeko aukera egongo delarik. DBHko ikasleek, gainera, haurrei aurpegiak margotuko dizkiete. Ibaratik Misio Taldeak ere postua izango du, urtero bezala, plazan. Bi postu jarriko dituzte, batean herriko merkataria eta erakundeek emandako produktuak jarriko dituzte salgai, eta bestean, Indiako, Ekuadorko eta Honduraseko artisau produktuak izango dituzte, dirua bildu eta hiru herrialde horietan dituzten proiektuetara bideratzeko. Herriko taberna eta



Epalleak iazko Lehiaketa Gastronomikoan, pintxoak baloratzen. I. SAIZAR

merkatariek emandakoekin osatu duten saski bat ere zozkatuko dute.

Era berean, Tolosaldeko XX. Ezti Lehiaketak ere plazan izango du topalekua eta herriko merkatariek paper marmolaketa tailerra ere antolatu dute bertan.

ABERE ETA HEGAZTIAK IKUSGAI

Emeterio Arrese eta Arane inguruak berriz, nekazarien eta baserritarren guneak izango dira. Emeterio Arreseko atzealdean abere erakusketa egongo da eta Aranen gainera, hegazti erakusketa ere egongo da. Emeterio Arrese parkean nekazarien produktuekin osatutako postuak izango dira nagusi. Euskal Herriko Piperraren VIII. Topaketa ere bertan izango da.

Ohiko lehiaketa gastronomikoa berriz, frontoian izango da. Ibarrako piperra ardatz duen

lehiaketa gastronomikoa izaten da eta aurten hamahirugarren edizioa ospatuko dute, eta lehiaketak badu berrikuntzarik. Aurten lehen aldiz, gildak ere prestatu beharko baitira. Gildek beraz, ozpinetan ondutako piperrak izan beharko dituzte. Guztira hortaz, sei pintxo egin beharko dira Ibarrako piperrekin eta beste zortzi gilda pintxo egin beharko dira. Beste sei pintxoak aldiz, hortzak nahiz beroak izan behar dira, eta nahi diren osagaiak erabili ahal dira, beti ere piperra bada osagai nagusia.

Gildaren inguruan bada beste berrikuntzarik, izan ere, gilden tailerra egingo dute Emeterio Arresen bertan, 10:00etatik 12:00etara. Ondoren, 12:00etatik 13:00etara egindako gildekin mosaiko erraldoia osatuko dute eta bukatzerakoan, gilda horiek dastatu ahal izango dira.

EGITARAUA

10:00-14:00. Postuak eta animalien erakusketak plazan eta Emeterio Arresen.

10:00-14:00. Euskal Herriko Piperraren VIII. Topaketa; Ibarrakoez gain, Peraltako, Lodosako, Ezpeletako eta Gernikakoak izango dira.

10:00-12:00. Gilda tailerra Emeterio Arresen.

10:00-12:00. Tolosaldeko XX. Ezti Lehiaketa, plazan.

10:00-13:00. Merkatarien eskutik, paper marmolaketa tailerra, plazan.

10:00-13:00. XIII. Lehiaketa gastronomikoa.

12:00. Ibarrako merkatarien hiru erosketaren zozketa Emeterio Arresen.

12:00-13:00. Gilda tailerrean egindako gildekin mosaiko erraldoia, Emeterio Arresen.

13:00. Lehiaketa gastronomikoaren sari banaketa eta lehiaketako gilden dastaketa, Emeterio Arresen.

Azokan herriko merkatariek hartzen dute parte eta 12:00etan merkataria elkartean herriko sal-tokietan banatu dituzten txartelen zozketa egingo dute. Hiru erosketaren zozketa egingo dute Emeterio Arresen. Gune honetan egongo dira ere Uzturpeko frantseseko ikasleak ere, ikasturtean zehar egiten duten elkartrukerako dirua biltzeko pintxoak salduko baitituzte.

Azoka 14:00etan bukatuko da, baina jaia luzatzeko aukera dago, izan ere, bazkaria antolatu dute eta txartelak Atari tabernan erosi daitezke 22 euroren truke.



urrate
BERRI ERAIKUNTZAK S.L.

**Etxebizitzak
salgai
LIZARTZAN**

Bulegoa: Plazaola kalea z/g LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 51
urrateberri@urrate.eus



makiu Oramahai

Ibarrako XVIII. azoka

Animatu, feriak bizitza ematen dio gure herriari, zatoz giro paregabeaz gozatzea!

Urtero bezala, aurten ere IBARRAKO AZOKAn egongo gera, gure kutixiak plazaratzen. Euskal Herria 8, Ibarra



'Albizuri Haundi' harria eta 1947ko jaialdian parte hartu zuten kargajasotzaileak. ATARIA

Azken Muga proiektuaren barruan, Joxe Mari Oterminek Zaraten, 'Emozioen estraperloa, mila eta bi istorio xume' hitzaldia eskaini eta istorio horietako batzuren kontakizuna honako erreportajeon jaso da.

Emozioen pasabidea

Joxemi Saizar

Azkarate eta Bedaio arteko Zarate gaina gertaera askoren kokalekua izan da mendeetan zehar. Nafarroa eta Gipuzkoa arteko muga horretan urte askotan mikeleteak izaten ziren merkantzia eta pertsonen trafikoa kontrolatzeko, baina amodio, apustu, heriotza eta bestelako gertakari askoren lekuko izan dira bertako basoak. Joxe Mari Otermin kazetari eta idazle amezketarrak hitzaldi batean laburbildu ditu duela gutxi, eszenatokian bertan.

Iaz hasitako Azken Muga proiektuari jarraipena emanez, aurtengo udan ere izan dira hainbat ekitaldi Zarateko gaine-

an. Azkena, Joxe Mari Oterminek *Emozioen estraperloa, mila eta bi istorio xume* izenburupean lekuan bertan eman zuen hitzaldia. Amezketa bere jaioterriari buruz idatzi dituen dozena erdi liburuetan, eta zuzenean horren bila joan gabe, puntu estrategiko honi buruz jaso dituen pasadizo eta kontu ugari azaldu zituen bertan bildu ziren entzuleen gozamenerako. Gaiari buruzko liburua egitearen komenientzia ere aipatu zuen.

Entzuleei zentzumenak adi jartzeko deiarekin hasi zuen Oterminek bere saioa, bertako mendiak eta basoak ikusteko, zintzarriak, animalien soinuak eta baso-mutilen aizkora kolpeak entzuteko, azienda, onddo, udaberriko ziza, mantzanila eta zezina usaintzeko... Baina «paraje gaiztoa, bihurria» izanik, zentzumenez gain, emozioak eta sentimenduak ikustearen ga-

rrantzia azpimarratu zuen, bertatik pasa izan diren pertsonaia horien emozio eta sentimenduak, «mikeleteek astoen kartoletan zahagi ardoa, garia edo olioia miatuz ikusiko ez zituztenak».

Gaizkileen mugaldea deitu izan omen zaio Zarateri, 1200 urtetik aurrera Gaztela eta Nafarroa arteko muga izanda, gaiztakeriak egiten zituztenek mugaz bestaldera pasatzeko joera izaten zutelako. Muga zela frogatzeko, Gorritiko gaztelua egon zen harkaitza ere bertatik ikusten da, orain Santa Barbara ermita dagoen tokia. Lapur-sasi izeneko lekua ere gertu dago, Inpernuko erreka inguruan.

1801ekoa da kontatu zuen lehen istorio xelebrea, abuztuaren 8koa, larunbata. Tolosako azokatik zetozen Gorritiko emakumeak, Lekunberriko parrokoa eta beste lagun batzuk elkarrekin jo-

atea erabaki omen zuten, bidelpurren beldurrez. Lau gizon atera, bi eskopetarekin eta bi labanarekin eta gauza dezente lapurtu omen zizkieten, «Bedaio eta Amezketa aldeko mendira joz», Zaratetik ziur.

1812ko azaroaren 7an Betelun bizi zen emakume amezketar bat pasatu omen zen bere jaioterriko udaletxera bidean, Nerverseko kartzelan zegoen senarra aska zezaten agiriak eskatzeko, aurretik semea frantziarren kontra zebilela Aramaion hil zutelako, ezpata kolpe batez lepoa moztuta.


Apustu kontuak ere agertu zituen kazetari amezketarrak. Adi-

bidez, Albiztur eta Amezketako gazteen artean pilotan egindakoa 1831n. Albizturtarrek errebantxa eskatu omen zuten Amezketan galdu ondoren, eta Lizartzan jokatu zen uztailaren 28an, orduan garaipena lortuz. Zaratetik pasako ziren orduan ere joan-etorrian Aralarko artzainak.

Albizuri Haundi harri fama-tua bertatik pasatu omen zen XIX. bukaera aldean. Orain arte erreka-harria zela uste bazuten ere, Intzako plazako botarria zela esan zuen hizlariak. Amezketan harri hori jasoko zuenik ez zela bota omen zuten desafioa nafarrek 1875-80 inguruan eta *Albi-*

Mugan urte askotan mikeleteek merkantzia eta pertsonen trafikoa kontrolatu zuten

Amodio, apustu, heriotza eta bestelako gertakari askoren lekuko izan zen Zarateko muga



Manuel Mujika korrikalari amezketarra. ATARIA



Joxe Mari Oterminek hitzaldi interesgarria eskaini zuen Zaraten. ATARIA



Zarateko mikeleteen etxea 1952an. ATARIA

zuri haundi deitzen zioten Zuriarrain abizeneko gizon indartsuak gauez joanda proba egin, altxa eta desafioa onartu eta irabazi omen zuen, bi ontzurre eta harria lortuz. Horren testigu ere izango ziren Zarateko zuhaitz eta lurrak.

1907an korrika apustu fama-tua izan zen Tolosatik Lekunberrira. Korrikarako zaletasun handia izan da Zarateren bi aldeetan. Ordurarte Euskal Herriko korrikalaririk azkarrena Manuel Mujika amezketarra zela esaten zen. Miguel Argiñarena entrena-tzaile zuela lortu zuen hori, baina Mujikak bere babesa utzi eta Arruitzeko Francisco Etxarri *Napar zaharra* esaten zioten mutil gaztearekin apustua egin zuen

urtarrilaren 29an. Milaka pertsona bildu ziren Betelu inguruan eta Lezaeta aldapa horretan eta izugarritzko dirutzak jokatu omen ziren. Hiru segundo aurretik pasa zen Mujika Betelun, lehen apustua irabaziz, baina Azpirotzeko aldapan ito eta lasterketa utzi zuen, bigarrena galduz. Hurrengo egunean Zarateetik pasatu zen galtzailea. Esaten da Mujikak apustua galdu, baina diru asko irabazi zuela, eta etxea eta artaldeak erosi zuela diru horrekin.

Garai batean pilotan luzean jokatzen zen, tenisean bezala, aurrez aurre. XIX. mendearen bigarren erdian hasi ziren frontoiak egiten eta Amezketakoa izan zen lehenengoetakoa, 1888-89an.

Betelu eta Arribetik jende asko joaten zen Amezketakoko frontoira pilota jokatzera. 1892an sekulako pilota eguna izan omen zen, goiz eta arratsaldean, inguruko herrietako gazteen artean partidak jokatuz. Egun hartan ere Zaraten oihu irrintzi eta malkoak izango ziren.

Estraperloan edo merkatu beltzean gauza guztien gaintetik gosea pasatzen zela alde batetik bestera esan zuen Oterminek hitzaldian eta 1894ko istorio tristea azaldu zuen. Bi amezketar zetozen mandoarekin, alde banatan bi zagi zituztela, mikeleteek alto eman, borrokan hasi eta 19 urteko mutil bat hilda suertatu zen, Olaia baserrikoa.

Duela 60 urte Amezketakoko bi-

koteei ezinezkoa zitzaizen Tolosara joatea igande arratsaldean eta elkar ikusteko ia aukera bakarrak inguruko festa handiak izaten ziren: San Migelen, Larraitzen, Azkaraten... Beraz, pasadizo handia izango zen horrelakoetan gain horretan.

Seguru asko Santiago bide txikiren bat ere bertatik pasako zela aipatu zuen, Manuel Lekuona eta Leandro Silvan historialariak esaten dutenez. Garai batean erromesek gaintetik joateko joera zutela aipatu omen zuen Lekuonak, bailara eta haran zuloe-tako bidelapurren arriskua ekiditeko. Gainera, San Martinen debozioa erromesek ekarri zuten Frantziatik (ermita dauka Amezketan, aterpetxoa daukana) eta

Jakuetxe izenekoa bada herri horretan.

Azkenik, San Inazio 1522an Iruñean zauritu eta Loiolako jaiotetxera bidean nondik joan zen argi ez badago ere, Zarateetik joatea posible dela esan zuen Jose Mari Oterminek, bere izeba Amezketakoko Jauregi handiko etxeoandrea zela kontuan hartuta.

Bedaio eta Azkarate arteko pasabide horrek garai batean gaur egun duena baino bizitasun handiagoa izan zuela argi dago, azken 40 urtetan galdu dena, eta hori gogoratu eta ahal den neurrian berreskuratzeko, ekitaldi gehiago ere izango dira uda-udazken honetan bertan, Azken Mugan bilduta.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEAZKENA, 2017KO IRAILAK 13
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082, tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118, ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132, kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: 902 82 02 01



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Orain gutxi ireki zituen bere ateak Zumardia elkartearen piragua guneak. I. GARCIA LANDA

Udazkeneko kanpaina abian du Zumardia elkarteak eta izena emateko aukera ere zabalik dago. Eskaintza zabala dago eta izen emateak helbide elektronikoz edo telefonoz egin daiteke.

Kirola naturan sustatuz

Erredakzioa Tolosa

Raid eskola, sendabellarrekin sorginkeri-tan, mendi trail eskola, piragua eskola... asmo eta egitasmo ugarik borabiltzen dute Zumardia elkartearen proiektua. Baina edonola, helburua azken batean, natura, hezkuntza eta kirola uzartzea da. Udazkeneko kanpaina jada martxan dauka elkarteak eta izena emateko aukera ere zabalik dago; helbide elektronikoa edo telefonoz izena eman daite-

ke: info@zumardia.eus edo 688 72 62 13an.

AUKERA ZABALA

Raid eskola irailaren 18an hasiko da eta plaza mugatuak ditu. 12 eta 16 urte arteko haurrei zuzenduta dago, hiru hilabete iraungo ditu eta saioak 17:30-19:00 bitartean izango dira. Naturarekiko harremana landuko dute parte hartzaileek kirol ezberdinen bitartez: eskalada, oreka, piragua, mendi bizikleta eta orientazioa.

Beste eskaintzetako bat sendabelarrei lotuta dago, hau Osabi

Naturala laborategian eskainiko zaie 9 eta 12 urte bitarteko haurrei, asteartetan 17:30-19:00 artean.

Mendi Trail eskola irailaren 25 eta 26an hasiko da eta bi talde egongo dira aukeran, adin tarterari begira: 12-14 eta 14-16 urte. Eskola hau haur eta gazteak mendian korrika ibiltzeko formatzera zuzenduta dago.

Azkenik, eta jada hasita dagoe-na piragua eskola da. Ikastaroak adinka sailkatuko dira, baina 12 urtetik aurrerakoek eman dezakete izena eta igeri egiten jakitea beharrezkoa da.

AGENDA

Deialdiak

Altzo. Bertso saioa. Mikel Artola, Oihana Iguaran eta Beñat Iguaran eta Txomin Azpiroz bertsolariak ariko dira, Imanol Artola *felix*-en gidaritzapean. 19:00etan, Batzarremuñon.

Tolosa. Mendiko film proiektzioa. Miguel Angel Bermudezen eskutik izango da, doan. *Retrospectivas del Club Alpino Uzturre, Descenso en almadia por el río Esca en Burguieta Las marmotas del Midi D'oseau.* 20:00etan, kultur etxean.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan zehar. Euskal musika.

28 KANALA

12:30. Onein.

13:30. Gaurkoan Tolosaldeitik.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeitik.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeitik.

22:00. Gipuzkoako Plazatik. Maribel Vaquero.

22:30. Alproja Antzerki Taldea *Gantzantze*.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeitik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.

Bronte Posada, C. Korreo, 20.
Telefonoa: 943 676013.

Gauekoa. Morant Barber, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 673849.


EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Tenperaturaren gora-kada handia. Hego-haizeak joko du lehen orduan eta horrekin tenperatura asko igoko da, balio altuenak 25-26 gradutan geratuko dira. Arratsaldean haizea ipar-mendebaldera aldatu eta freskatuko du. Zeruan hodei gutxi. Gehien bat hodei altuak. Orokorrean eguzkitsa, nahiz eta egun amaieran mendebaldetik hodeiak sartzen hasiko diren.

Bihar. Eguraldi goibela bueltan. Goizean eta arratsaldeko lehen orduan fronte batek zeru estalia eta euri pixka bat ekarriko du, nahiz euri askorik egiterik ez den espero. Arratsalde-gau partean atertzera egingo du. Tenperatura asko jaitsiko da.

ZORION AGURRAK



Zorionak!

Begira nola bukatu duen gure Frozenek: tabako eta sexu artean... Urte askoan, putxurru!

gozatu Uda atariaekin!



Atarikideek	Gainerakoek
4€	5€
16€	18€
18€	22€

kantimplora

toalla

kantimplora+toalla

atariako
bulegoan eskuratu!

San Esteban auzoa, 20
TOLOSA
943 65 56 95

